



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak.....	2
2. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak	4
3. Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak 2021	6
4. Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak	8
5. “Erronka globalen aurrean, gazteak martxan” deialdia, gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenak saritzeko	10
6. Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko	11
7. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako	12
8. Euskal Autonomia Erkidegoko espetxean dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuak eta zigor askatasun-gabetzailea etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntza	13
9. Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda	15
10. Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda	17
11. Abokatuen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak	18
12. Prokuradoreen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak	19
13. Doako laguntza juridikoa, Abokatuen elkargoak. Abokatuen prestakuntza	20
14. Pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak	22
15. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutoretzagatiko edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa	24
16. 2020/2021 ikasturtean 3 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatuzeko laguntzak	27
17. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa	29
18. Udal mailako Harrera-sarea sendotzea. Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren jarraipenerako (TEC lerroa). Dirulaguntzak toki-erakundeei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko (LOC lerroa).	32
19. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak	34
20. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak	35
21. Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa	36
22. Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa	37
23. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa	38



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko abenduaren 3koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2021. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/12/2005332e.pdf>

Emate-erabakia:

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/09/2104919e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldeaz gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021. urtean 73 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik 56k lortu dute diru-laguntza, 3k uko egin diote eskaerei, eta beste 14ri hainbat arrazoiengatik ukatu zaie (deialdian eskatutako gutxieneko autofinantzaketara ez iristeagatik, gazteei zuzendutako jarduerak ez izateagatik, edo deialdiaren aplikazio-esparrutik kanpo zeudelako).

Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 55 izanik 56 proiektu lagundu baitira diruz. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 535.757 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (536.000 €) %99,95, alegia.

- Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 375.654 euro.
- Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 23.100 euro.
- Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 137.003 euro.



Diruz lagundutako jarduera horiek erabilgarriak eta beharrezkoak dira gazte-elkartegintza sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan lekua duten jarduera eta programak bereziki, lehen deskribatutakoak. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako diru-laguntzak	55	56



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko azaroaren 25ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2021. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/12/2005433e.pdf>

Emate-erabakia:

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/09/2104990e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzaten laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021. urtean 19 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik, hasiera batean, 13 proposatu ziren diru-laguntza emateko, batek prozeduran atzera egin zuen eta beste 5i ezezkoa eman zitzaizen hainbat arrazoiengatik (deialdian ezarritako baldintzak ez betetzea, parte-hartzaileen kopurua eta jardueraren iraupena).

Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 15 izanik hasiera batean 13 proiektuk jaso baitzuten diru-laguntza. Era berean, esleitutako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 142.181 eurokoa izan zen, hau da, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) % 98,06. Hala ere, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, proiektuak onartu zitzaizkien eskatzaileetako 4k uko egin zioten eta, beraz, azkenean 120.598 € eman ziren.

Garbi dago jarduera guztiek betetzen dituztela aginduaren xedea, hori sorrerako filosofia, hau da, gazteen integrazioa bultzatzeko tresna bat, beste bat, izatea; kasu honetan, gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jardueren bidez, erakunde eskatzaileen ekimenarekin, askatasuna eta sormenerako ekimena baitituzte edozein jarduera edo programa planifikatu eta antolatzeko. Hainbat erakundetan elkartutako herritarren ekimenetik sortutako jarduerak dira, zalantzarik gabe; izan ere ezinbestekotzat



jotzen dute gazteen arteko mugikortasuna Europako kide izateko sentimendua sustatzeko, eta gaitasunak, trebetasunak eta kompetentziak garatuz sozialki eta profesionalki integratzen laguntzeko.

Hala, diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	15	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen baita, 2021. urtean honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bada.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/08/2104528a.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200568e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea toki-erakundeek gazteen emantzipaziorako planak edo emantzipazioari lotutako beste ekimen batzuk egiteko.

Diruz lagun daitekeen arloa: diagnostiko-azterlanak, gazteen emantzipazio-planak, gazte-planak edo gazteen emantzipazio-prozesua laguntzeko beste ekimen batzuk egiteko gastuak ekitaldian zehar.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

17 eskaera erregistratu dira. Horietatik 11k diru-laguntza jaso dute eta 6 ukatu egin dira deialdiaren baldintzekin bat ez etortzeagatik. Ondoren, erakunde batek aurkeztutako bi proiektuen diru-laguntzari uko egin zion, aurreikusitako jarduerak garatzea ezinezkoa zelako.

Programaren betetze-maila baxua da ikuspuntu ekonomikotik, 157.962,39 euroko diru-laguntzak eman baitziren, hau da, aurrekontu erabilgarriaren % 15,04. Hala ere, kontuan hartu behar da laguntza-lerro sortu berria zela, eta, beraz, onuradun izan zitezkeen erakundeek ez zuten laguntzaren berri. Gainera, urteko azken hiruhilekoan argitaratu zen, eta, ondorioz, gauzatze-epea amaitu arteko epea oso laburra izan zen. Faktore horiek izugarri zaildu zuten toki-erakundeek diruz laguntzeko moduko lanak planifikatzea eta gauzatzea oso denbora laburrean, eta, horrexegatik, eskaeren kopurua deialdia prestatu zenean espero zena baino txikiagoa izan zen.



Hala eta guztiz ere, Agindua argitaratzeak toki-erakundeen interesa piztu zuen. Izan ere, hurrengo ekitaldian ere jarraitzeko eskaera egin zioten Gazteria Zuzendaritzari, beren udalerrian emantzipatzeko proposamenak egin eta finantzaketarako aurkeztu ahal izateko.

Diruz lagundutako jardueren artean, lau kasutan herriko gazteen emantzipazioan eragin zuzena duten faktoreen egoerari buruzko diagnostiko-azterlanak egin dira (diru-sarrereren maila eta etxebizitza, batez ere). Horrelako azterlanak egitea oso positibotzat jotzen da, politika publiko eraginkorrak diseinatzeko funtsezko elementua baitira. Diruz lagundutako gainerako jarduerak foroak eta partaidetza-prozesuak bultzatu dituzte, batetik, premien ezagutzan sakontzeko eta, bestetik, gazteen eskaerei erantzun ahal izateko proposamen berritzaileak garatzeko aukera ematen duten formulak baitira.

Diruz lagundutako jarduerak interes ukaezina dute deialdiaren helburuei dagokienez; izan ere, honako premisa hau hartzen da abiapuntutzat: gazte-politikek bizi-baldintzen benetako hobekuntzan eragin dezaten, eragin nahi duten gizarte-errealitatea zehatz-mehatz ezagutu behar dute. Eta horixe da, hain zuzen ere, deialdi horren xede den jarduera motarekin lortzen dena.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez dago zehaztuta		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2021eko ekainaren 16koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Haren bitartez, tokiko eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-ekipamenduen sarea 2021ean bultzatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautu eta deitzen da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/06/2103738e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/02/2200567e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak ematea.

Diruz lagundu daitekeen esparrua: Ekitaldian, espezifikoki 12-30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko etxebizitzak eraikitzeko, berritzeko, egokitzeko edo handitzeko proiektuak egiteko gaituta dauden profesionalen proiektuen gastuak, bai eta halako obrak egiteko gastuak edo kostua ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

20 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 17k diru-laguntza lortu dute 1ek atzera egin du aurkeztutako eskaeran, eta beste 2 ezetsi egin dira (deialdian ezarritako betekizunekin bat ez etortzeagatik). Ondoren, erakunde onuradun batek uko egin dio emandako diru-laguntzari, ezin izan dituelako aurreikusitako ekimenak garatu.

Diru-laguntza programaren betetze maila ertaintzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 17koa baitzen, eta hasiera batean 17 proiekturi eman baitzaie diru-laguntza. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 289.914 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (290.000 €) %99,97, alegia. Hala ere, erakunde onuradun batek uko egin zion emandako diru-laguntzari, ezin izan zituelako aurreikusitako jarduerak garatu; beraz, azkenean emandako zenbatekoa 276.585 eurokoa izan zen.

Emandako diru-laguntzen bidez, Euskadiko gazte-ekipamenduen sarea osatzen duten toki esparruko gazte-ekipamenduen sorrera eta hobetzea sustatzen jarraitzen da. Diruz lagundutako proiektu horiek erabilgarria keta beharrezkoak dira toki esparruan gazteria arloko zerbitzu-politika sustatzeko. Programaren erabilgarritasun horrek gazte-ekipamendu horien sorrera eta hobekuntzari emandako



bultzada du oinarri, eta hori gazte politikaren helburu orokorrekin lotuta dago zuzenean, alegia, gazte guztien arteko aukera berdintasuna bermatzearekin, euren giza ahalmena ahalik eta gehien gara dezaten eta gizartearentzako onura handiak lor ditzaten.

Beraz, gazte-ekipamenduen funtzionamenduak eragin sozial handia suposatzen du sustapenari dagokionez, bai eta gazteen garapen pertsonalari eta taldekakoari dagokionez ere; izan ere, toki esparruko gazte-ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea euskal gazteriaren behar eta eskaeren erantzun instituzionalean sartzen da. Beraz, tokiko esparruaren hurbiltasun handiagoa aintzat hartuta, zerbitzu eta ekipamenduen emate zuzenari dagokionez, kasu honetan, gazteei, toki esparruan pixkanaka gazte arloko ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea handitzeak gazteen bizi-kalitatea hobetu eta euren aisia eta denbora libre a egoki erabil dezaten laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	17	17



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

“Erronka globalen aurrean, gazteak martxan” deialdia, gazteen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzeko egindako proposamen onenak saritzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 27koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zein-naren bidez onartzen baita «Erronka globalen aurrean, gazteak abian» deialdia, 2021. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105703e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/01/2200156e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lehiaketa 18 eta 30 urte bitarteko EAeko gazteei zuzenduta dago, baldin eta elkartasunaren balioak, garapenerako lankidetzeta eta Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazteen arteko trukea sustatzeko ideia bat badute. Deialdi honek 29.000 euro aurreikusten ditu guztira saritan (3.000 euroko hiru, 1.000 euroko hamar eta 500 euroko 20). Epaimahaiak lankidetzarekin edo gazteriarekin lotutako pertsonak osatzen dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko edizioan 22 proiektu aurkeztu dira, eta 59 pertsonak parte hartu dute. Guztira 14.000 euro eman dira saritan (8 proiektu saritu dira: 3.000 euroko hiru sari eta 1.000 euroko 5 sari). Betetze-maila ontzat jotzen da, sari horien lehen edizioa dela kontuan hartuta.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte-hartzaileak	Zehaztugabe	59
Aurkeztu diren proiektuak	Zehaztugabe	22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko

2.- Araua

Agindua, 2021eko irailaren 22koa, Berdintsun, Justizia eta Politiketako sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2022ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

-Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105278e.pdf>

-Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201113e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora bidera ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi hori egin ondoren, xede horretarako aurreikusitako 40 beketatik 33 eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegokoa justizia aparatuan integratuko baitira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatzaile kopurua	40	33



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako

2.- Araua

2021eko azaroaren 10eko Agindua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei bake-epaitegien 2021eko funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106084e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.

Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi hori eginda, helburu horretarako aurrekontuan sartutako zenbatekoaren (500.000 €) % 92,42 gauzatu da (462.075 €).

Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Udalen diru-laguntzen zuriketa	236 Udal	232 Udal



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxean dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuak eta zigor askatasun-gabetzaila etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntza

2.- Araua

Agindua, 2021eko irailaren 30ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden eta askatasunaz gabetzeko zigorra duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako eta askatasunaz gabetzeko zigorra etenda duten zigortuentzako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia egiten duen Aginduaren argitalpena (EHAA zkia 208, 2021/10/19koa)

Emate-ebazpenaren argitalpena (EHAA zkia 45, 2022/03/03koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da irabazi-asmorik gabeko erakundeek gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak garatzea espetxeetan dauden edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuentzat eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten pertsonentzat.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean, zigortuak eta presoak gizarteratzearen alde lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko 34 erakundek 43 inklusio-proiektu aurkeztu dituzte. Horietatik, 34 proiektuk jaso zuten diru-laguntza, eta deialdiaren zuzkidura agortu egin zen. Hona hemen diruz lagundutako proiektuen zehaztasunak modalitateka, modalitate bakoitzeko diru-laguntzen zenbateko metatuekin:

Modalitatea	Diruz lagundutako proiektuen zenbatekoa	Esleitutako diru-laguntzen zenbatekoa
Esku-hartze psikoterapeutikoko eta sozioedukatiboko programak	6	79.884,44 €
Irteera programatuak eta auzolandegiak	2	1.032,70 €
Egoitza – eta ostatu-baliabideak	3	57.304,43 €
Droga-mendekoak gizarteratzeko baliabideak	5	86.959,94 €
Prestakuntza – eta trebakuntza-zentroak	6	88.026,04 €
Enplegurako orientazio – eta laguntza-zentroak	9	164.101,89 €
Askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena eteteko neurria onartu zaien pertsona zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak	3	22.690,56 €
Total	34	500.000 €



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak	43	34



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua benetako babes judizialerako sarbidea bermatzea da – Konstituzioaren 119. artikuluan aipatzen dena – Auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenei, bai eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuei ere, zeinei 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkartzarako eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitza hauxe da: estatu demokratiko batean herritarrek kalitatezko doako justizia izateko duten eskubidea bermatzea, Konstituzioaren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen zaien pertsonak auziaren kostutik salbuetsita geratzen dira, eta eskubidea dute behar adinako kualifikazioa duen abokatu baten doako aholkularitza eta defentsa jasotzeko, eta prokuradore batek ordezkatzeko. Administrazioak finantzatzen du zerbitzu publiko hori. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko jarduera Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan (OJZ) hasten da, eta, ondoren, espedienteak DLJko batzordeei helarazten dizkiete. Batzorde horien bilerak, salbuespenak salbuespen, 2 astean behin egiten dira.

1412 Programaren Memoriak 2021ean Doako Laguntza Juridikoaren 3 Batzordeen artean egin beharreko 66 saio jasotzen zituen, aurrez aurreko bilerak edo bilera telematikoak, betiere COVID-19 pandemiaren balizko mugen zain.

Kide anitzeko organo horien bileretara joateagatik kalte-ordain gisa egindako gastua 10.000 €-koa izan da (bi sei hilean behin ordaindutakoak).

Doako Laguntza Juridikoaren Legearen aplikazioa erraztu da, eta arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko jarraipena egin da; izan ere, EAEko Abokatuen Elkargoei ordaindu zaizkie abokatuek ofiziozko txandan egindako jarduketa guztiak, bai eta guardiako txandan emandako laguntzak ere.



1412 Programaren Memoriak 5.500 espediente aurreikusten zituen Araban Doako Laguntza Juridikoa eskatzeko, 8.000 espediente Gipuzkoan eta 16.000 Bizkaian. Guztira, DLJko 29.500 espediente kalkulatu ziren. Eta 2021eko ekitaldi ekonomikoan egindako likidazioen ondoriozko datuek 31.598 emaitza ematen dute guztira, hau da, 6.438 Araban, 14.133 Bizkaian eta 11.027 Gipuzkoan. (2020an baino 4.088 gehiago). Gorakadaren arrazoia 2021eko egoeraren hobekuntzari egotzi behar zaio, COVID-19 pandemiak 2020an eragindako egoerarekin alderatuta; izan ere, hilabete batzuetan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuak itxita egon ziren jendearentzako arretan.

1412 Programaren Memoriak DLJrako eskubidea aitortzen zuten ebazpenen % 75 aurreikusten zituen, eta kopuru horren emaitza % 87raino igotzen da, 27.488 kasu izan baitziren eskubidea aitortzearen aldeko ebazpena eman zutenak (genero-indarkeriagatiko eta etxeko indarkeriagatiko zuzeneko aldekoak edo positiboak barne); 3.096 aurkako kasu (% 9,8) eta 1.014 (% 3,2) artxibatu egin ziren, izapidetutako 31.598 espedienteetatik.

Aldeko espedienteetatik, nabarmentzekoa da 3.258 (aldeko guztien ia % 12) genero-indarkeriaren biktimei dagozkiela. 1412 Programaren Memorian 4.000 jarduketa aipatzen ziren etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen txandan.

Generoen arabera, doako justizia eskatzeko espediente guztien % 38 (12.087) emakumeei dagokie, eta % 62 (19.621) gizonei.

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko horren gizarte-inpaktuaren ebaluazioa da konstituzio-agindu bat betetze formala, abokatuaren doako defentsa eman baitzaie beren prozedura judizialeterako legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Aurreikuspen-adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Doako laguntza juridikoko espedienteen kopurua	29.500	31.598



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek benetako babes judiziala izango dutela bermatzea; eta beste pertsona eta erakunde onuradun batzuk ere bai, 1/1996 Legeak zuzenean aitortzen baitie doako defentsa eta ordezkaritza eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko horren gizarte-inpaktuaren ebaluazioa da konstituzio-aginduren betetze formala, prokuradore bidezko doako ordezkaritza eman baitzaie beren prozedura judizialerako legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea _____ Aurreikuspena _____ Emaitza _____

(Ez dago ezarrita)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).

153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionaleri zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboari eusteko abokatuen elkargoek egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatuz 38) Abokatuen elkargoei Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboak eragindako urteko kostuak egiaztatu ondoren, 2020rako aurrekontuetan ezarritako zenbatekoak ordaindu zaizkie.

Lortutako emaitzak finantzaketaren nahitaezkotasuna ezartzen duten arauetan aurreikusitakoak dira, eta horrekin horien bideragarritasuna bermatzen da, ezinbestekoa baita erabateko erabilgarritasun eta inpaktu soziala duen zerbitzu publiko baten funtzionamendu operatiboaren ziurtatzea. Abokatuen Elkargoentzako kontraprestazio bat da, doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamendu operatiboak, herritarrei prozesuaren aurretik aholkularitza eta orientazioa emateaz arduratzen diren unitateek eta eskatutako uzien behin-behineko kalifikazioak sortzen dieten kostua ordaintzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea _____

Aurreikuspena _____

Emaitza _____

(Ez dago ezarrita)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (1996-01-12ko BOE).
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa (2018-11-06ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargo-kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionaleri zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko ardura ematen die. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek diruz lagunduko dituzte Prokuradoreen Elkargoek beren zerbitzuen funtzionamendu operatiboari eusteko egiten dituzten gastuak, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea ziurtatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatzea eta betetzea erraztu da, babes gutxien duten herritarrei benetako babes judiziala berdintasun-baldintzetan eskuratzea eragozten dieten oztopoak kentzeko. Lortutako emaitzak horiek lortzera behartzen duten arauak aurreikusitakoak dira, eta horrek haien erabilgarritasuna eta gizarte-eragina bermatzen du, kontraprestazio bat baita prokuradoreen elkargoentzat, doako laguntza juridikoaren onuradunentzako ofiziozko txandaren funtzionamenduagatik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Aurreikuspen-adierazlea _____

Aurreikuspena _____

Emaitza _____

(Ez dago ezarrita)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Doako laguntza juridikoa, Abokatuen elkargoak. Abokatuen prestakuntza

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoari buruzkoa (1996-1-12ko BOE).

Doako laguntza juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretua (2018-11-6ko EHAA) jarria).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

153/2018 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2018/10/30/153/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

153/2018 Dekretuaren 32.3 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzan justizia-arloko eskumena duen sailak, aurrekontu-baliabideen arabera, ofiziozko txandako espezialitateei atxikitako elkargokideen hasierako eta etengabeko prestakuntza finantzatzen lagunduko du, defentsarako eta ordezkartzarako eskubide konstituzionala bermatuko duen kalitate eta gaitasun profesionalaren maila bermatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Abokatzaren Euskal Kontseiluak aurkeztutako 2021eko Urteko Prestakuntza Planak Abokatuen 3 Elkargoetako 48 prestakuntza-jarduera (hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak) biltzen zituen, 87.110 euroko kostuarekin. 1412 Programaren Memoriak 3 laguntza ekonomiko, 30 prestakuntza-ekintza eta gauzatutako prestakuntza-planaren % 90 jasotzen zituen.

